

ARRANEGITIK ARRANONDORA

Eusebio Erkiaga (1912-1993) gomuta nahian

I

Bazan behin mutikotxo bat, hamasei-hamazazpi urte ingurukoa, Lekeitioko herrian uda emoten hasi zana. 1970. urteingurua etorren eta Euskal Herriko urak pilpilean egozan. Burgosko epaiketa zala eta, haize burrunbadak, euskaldunen bizitzak harrotu ezeze, asaldatu be egiten zituen. Aldikada horretan heldu zan gure gaztetxoa Lekeitiora, sasoi haretako Lekeitio euskaldunera eta kalea zapaldu orduko, euskeraren oihartzunak harriduraz beteriko oinezko gazte honen belarriak astindu zituen. Izan be, orduko Lekeitio, herri euskaldun bat zan, sus-traibako baino, nortasun beteko herri euskalduna.

Bilbotik etorrita, gure gizongaiak euskera etxetik ezagutu arren, aspalditik ugerrak eta —zergaitik ez— zabarkeriak be erdi janda eutsan berbeta mota hau. Etxekoak, euskaldunok baita be eta aspalditik Lekeitiotik ibilitakoak izanik, lekeitiarrentzako bidea zabaldu eutsoen. Rufo Atxurra izan zan gidari eta honen arrimu paregabea, peskiza handirik bage, laster jakin eban hel-

Idazlan hau azken zenbakian (*Karmel* 1993-3, 3-26) argitaratu genduan, baina tamalez huts askotxoz agertu zan ezkerro, barriro argitaratzen dogu zenbaki honetan.

dubaga harek berak horrenbeste miresten eban Txomin Agirre-
ren «Kresala»k baeukala, euki be, hantxe bertan, Lekeition, hu-
reneko seniderik, hain zuzen be, Eusebio Erkiagaren «Arranegi».

Nor, oster, Eusebio Erkiaga? Zelangoa, alabaino, «Arranegi»
hori? Galdera metatzen jakozan bilbotar heldubarriari. Erantzun-
nik ezean, iturrietara jo behar. Haitzari ura dariola dino kantu
zaharrak eta izan be, haitza baino sendoagoa zan Eusebio
Erkiagaren literaturtasunari alderdi guztietatik erion euskal
usaina. Liburua eskuratzeko ailaginakoak egin eta gero, bere-
hala hartu eban eskuartean Erkiagaren «Arranegi», Itxaropena
argitaldariak argitara ekarria. Eskuraketa gozotsu ha, Bilbo
zaharreko «Verdes» liburudendan gertatu zan, galbahe estuko
erderazko liburujasaren aldamenean egoan euskal moldez
idatzitako liburu bazter txokoan, hain zuzen be.

Jabetu eta gero, baserririk bageko etxaguntza haren ugazaba
izanik, negu luzearen gau asperretan, Mari Bekanekoak hartu
arte, hortxe ebilen gure irakurlaria eretik ereti, euskeraz ne-
kez baina borondatez trinkoz, ele idatziari ekin eta ekin.

Orrialdeak, bala-bala baino, ezari-ezarian atzamartzen zi-
tuan, behin eta barriro hitzen jarioa dastatuz. Lantzean behin,
berba gozagarri baizen ohargarriren bat. Halako baten, esa-
molde dotoreren bat, euskal sena barru-barrutik adierazoten
ebana. Berba, hitza eta autua, letra egina, paperatua. Eta eus-
keraz. Non gehiago?

Gaztaroaren grinak ez ete dira ba iraunkorrenak? Honela
gertatu jakon, gertatu be, bilbotarrari. Lekeition bazan «Arrane-
gi» eta bistakoa zanez, ez eukan «Arranondo»ren inbidiarik.
Agirre ondarrutarraren luma finak baeban, berrogeitamar urte
geroxeago, haren pareko, zordun jakona baina ez, ezelan be-
re, morroi hutsa.

«Arranegi» eukan ezizentzat Lekeitiok Erkiagaren testu erren-
kadan, hango auzorik «lekeitiarrena» uri osoaren adierazletzat
hartuta. Agirreren Arranondotik Erkiagaren Arranegira, horra

hor gure mutiltxoak egin eban jausia. Bion arteko osina, euskeraren bidez zubi eginda, biotan gozatu ahal izateko bi euskal maisuon abilezia.

Batean, ekialderantza, Arranondoren klasikotasuna eta gizonen esku hutsak arraunetan; bestean, mendebalago, itsastarren eta lehortarren arteko gorabeherak. Biotan herria, Euskal Herri itsastar eta marinela, eta oinarrian, herri izakera oso bat errealtate eta giro desbardinetan gorpuztua.

Arranondo/Arranegi, itsas adarreko euskal kulturaren bikoiztasunik bikoitzena, euskera kresaldunaren ispilu beteak, Lea-Artibaik euskal gaietan dauan indarraren erakusle preziatuak. Paisaia, itsaso zabala eta euskal herri itsastarra; lanabesa, euskera; langileak, euskal idazleak: Agirre/Azkue, Erkiaga/Zubikarai. Euskera bera, bizkaieraz usainduta, bere nondik norakoaren zatirik garrantzitsuenetarikoa agerian dagoala.

Zer ikusi, ha ikasi, dino euskal senak. Non bazka baeukan arranegitarrak Arranondon. Izpirituaren men eta lumaren zor. Musak nora, idazkera hara.

Hona hemen, besterik bage, eredu batzuk.

Herriak zelakoak:

«Arranondo»,

«Errekarte ta mendi egal zoko katean dindilizka dagoan erri koskor bat da gure Arranondo. Uretan daukaz oñak; aldatz andiak iri edo kalietan; kale batetik bestera, zearretarako arri malla pendiz urteakaz leunduak; etxeak bata bestien gañean, atzeko aldea lurpean sarturik eta aurrekoen tellatutik arpegia erakusten; iñok usteko ezleukean aña gizadi etxe bakotxean, berrogetamarretik gora beti, umeak geienak; eta leio zulo dantetan atorrak eta gonak, alkondarak eta prakak, itxas gizonen jaka urdiñak eta oeko zapi zuriak esegita.»

Tx. Agirre. «Kresala ».

«Arranegi»,

«Iru mendiskaren magalean eta uraren ezpaiñetan etzunda, txairo, lirain eta beti txeratsu egoan, ene txoko atsegiña. Lurraren ezetasunez inguratua: artotza, zelai, zugazti eta basoak. Bestetik, ondartza garbi edatsuak, urrezko izaraz apainduak. Eta azkenez, itsasoaren esi aundia, bits eta apar zuriez jantzia beti bere. Eta goian, erregin buruntza iduri, ortzi edo zerualdeko uztai zorabiozkarriz ornidua.»

E. Erkiaga. «Arranegi».

Herriak zelakoak, norbanakoak halakoak bere, esan daiteke aurrekoa birrabiatur. Norbanako horreen siniskerak, bizimodu, ohiturak eta abarrekoak egiten ditue herriak.

Sinismenetan biok sendo. Eliz-kontuetan, biok aitagarri.

«Arranondo»,

«Ederra da Arranondoko elizea. Kanpotik begiratu ezkerre, edozeñek daki godotarren egikerarik onenetakoa dala; barrutik zer egikeratakoa dan ezin ondo igarri leikeo. Txurrigeraren egunetako bost edo sei elizmai edo altara daukaz, zabalak eta galantak, nagusiaren eskumalditik Done Pedrorrena, ezkerretik kurutzean joserik dagoan Jesusena.»

Tx. Agirre. «Kresala».

«Arranegi»,

«Ta ondoren, elizara ziran. Uriko Izarraren etxe eder, erriko sinismendunen gaztelu sendo, uriko betiko Jaunen jauregi bikaiña! Amabi aldare dituan eleiza arro, zoragarria. Bizkai osoan, gotiko eran oberik ezagutzen ez dauana. Erakusmeneko Basilika ori, ingelesak egiña dala da esatea, Baionako katedralaren antzekoa baita, aek egiña. Lenengo eleiza zaarra 730 gn. urtean edo, egin ei eben. Gero, 1289 gn. iru obispuk donetsia. Ta

1288 gn. urtean aunditu ta barriztaurik, 1512 gn. amaitua. Andra Mariaren irudi baltzerana, bizkaitar irudietarik iru zaarrenen artekoa. Itsasoko ondartzan VIII gn. mendean elorri batean agertutakoa. Aintziñatiko, zaar edo antiguako izen ori 1502 urtean ipiñia ei da, aldare nagusi barrian beste Andra Mariaren bat egin ebenean.

Erdimendeko bidaztiak, Kompostela, Erroma ta Hye-rosolymerako erromesetan, bideko geldiuene bearrezkotzat etsi oi eben, Irudi Zaar onen oiñetan atsenegitea. Irudia, 0,40 metro garaia da; motza da izan, lan apainga, santugin lenengotarrak oi eben lakoa.»

E.Erkiaga. «Arranegi».

Ohitura eta ekanduetan bere, tinko eta eraginkor.

«Arranondo»,

«Alderdi guztietako sagardantegi ta ardantegiak, danak izaten dira bardin samarrak, itxas errietan beintzat. Sagardantegia bada, kale arian bertan edo arri malla bat igonda idoroten dan kortea edo tresna zarrak gordeteko gelatxu bat, beian lurra, goian amarauna ta egur biren gañean upel batzuk erreskadan dituala: sagardaoa ona izan dedilla ta non jarririk egon ezarren ezta izaten ardurarik. Ardantegia bada, mai luze luze bat, maia beste luze diran aulki bi alboetan, zaragi bat edo bi bazter baten da lurrezko pitxar morko ta leiarrezko edanontzi batzuk, ormearen kontra josita dagoan araze zar batean. Ezta geiago bear izaten.»

Tx. Agirre. «Kresala».

«Arranegi»,

«Ogei lagunik etzegoan ardandegi edo txalupetxe artan, baiña beste ainbeste ta geiago bere, ba egozala esan zeintekean, an barruan sumatzen zan berbots eta zurrumurruagaz.

Iluntzea zan, eta arratseko une ori izan bere, egoki ta artarakoena da, lan aldia utzi ondoren, eguneko gorabera, albista, izpar ta esamesak alkarri agertu ta adierazoteko, eta esanok geituaz eta aldatuaz lenengo antzik bage utzi ta gorputz barriez taiuturik adiskideei iruntsi-erazoteko.

Keia an barruan bere ba ebillen ibilli; ez ostera suteko kerik, tabako orriak erreaz zabaltzen ebena baiño.»

E. Erkiaga. «Arranegi».

Baeukan, beraz, gure kaletarrak hurrengo udaldirako Lekeition zerikasía eta zeresana. «Arranegi» zelakoa be baekian, nahiz eta haren sortzailea ondino ezagutu ez.

Pentsamentu horregaz abiatu zan gure gaztetxoa, udaldiaren lehen egunetan, Lekeitiorantza, ikasturte haretako unibertsitateko lanak amaitu eta gero. San Pedro eguneko ohizko kaxarranka eta kilinkalaz solasteko eta, baita be, gerotxuan, gabeko lehen izarrak euren jantzia ezarri baizen laster, Talako dantzaldi gozoan partaide izateko asmoagaz. San Pedro eguna zan, Lekeition egoan eta udaldia hastera joan...

II

«Bat bitan banatzen da» ei dino, esan be, zaharreko esakera txinatar batek. Horrelakoren bat gertatu jakon be, gure gaztetxo dalako honi, Eusebio Erkiaga ezagutu eban egunean.

Meza nagusi osteko abagunea zan. Rufo Atxurra bitartekari zala, etxean hainbat bider entzundako Erkiagaren izen ia mitiko ha («euskeraz idazten eban eta») gorpuzturik ikustean, gaztetxoaren irudimenak haregazko eukan ikuspegitik tarterik nimiñoena be ez zala aldentzen nabaritu eban. Itxaroten eban lakoxea topatu eban haren figura. Argal, fin, betaurrekodun, esku leun baizen hatzamar urduriak. Izenez Eusebio Erkiaga Alastra, 1912. urteko irailean Lekeition jaioa. Izenordez, euskal

letretan, «Endaitz», «Erkiagarre» eta beste batzuk. Ahora ahala, euskal literatura borborka eriola ohartu eban gazteak.

Ordu luze bi joan ziran Eusebio eta gure gaztearen arteko jardunean. Plazako kioskoa aldamenen eukela, hango zuhaitzen gerizpera jarrita, orduko euskal literaturari emon eutsoen alkarregazko errepaso gozoa. Sasoi haretako kezka —egunekoak bere bai, neurri handi baten— azaleratu ziran bion artean, berbalari nagusiaren jakintza gisa eta mutikotxoaren ikasmenarako. Euskera batua, euskalkiak, Axularzalekeria, autore klasikoak, lehiaketak... aurkibide luzea izan zan ha, baten ika-segarrirako eta bestearen gogorako.

Denbora nagusi, halanbere, eta eguzkia gori-gorian egoala, arratsaldeko ordubata t'erdietan, Eusebio eta gazteak ibilaldi txikitxo bat egin eben abadeen moilatik. Oinezko bien artean joan autua, eta orduntxe atara eban lekeitiarrak garunaren kolkotik On Juanen gomuta. On Juan? nor ete? galdetu eutson gaztetxoak, jakinminez jota. Erkiagatarrak azaldu eutson gaia. On Juan deitura ebana Juan Eguzkitza abade euskaltzalea izan zan, berrogei urte luzetan Lekeition bizi izana eta euskalgintza lanetan irakasle ohargarria, heriotzeak, gerlaren eraginez lagunduta, 1937. urtean bere magalera eroan arte.

Jarraitu eben kontua eta agurtzerakoan, lekeitiarrak gazte-txoaren eskuetan jarri eban testutxo bat, olerkitxo bat, hain zuzen be, Eusebiok urte horretan bertan, eta aspaldiko ohiturari eutsiz, bere herriari opatzen eutsana eta urtez urte Lekeitioko jai egitarauaren sarrera-olerkia eta ataria izaten zana. Aldarte eta aldi desberdinetako olerkiak ditugu hor, beti be, Lekeitioaren ingurukoak. Sorlekuaz idazterakoan, gainera, lumaren hegada, gorantzako norabidean.

*Udazkeneko egun uretsu batean
heldu nintzan mundura itsas ezpainean,
Kantauri aroaren hegi politean
sortu ta hazia naiz pake eder betean.*

Eusebio Erkiaga, «Arbasoen Herri». 1954.

Urteak joan-etorrian ibili dira anartean. Gazteak, Eguzkitza-ren «Gizarte-auzia» liburua topatu eban, ustekabeen, bere senide batzuen ganbara zahar baten, gerla garaitik ahaztuta, azalik bage baina orrialdez osorik. Ekin deutsa irakurtzeari. Gehiago jakingurean jabilku gure ezaguna eta Eusebioren atean osterabe joka. Honek, eskuzabal, bere lanaren dohaia: *«Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939) bere bizitza eta lanak»*.

Berbak lekuko, «Gizarte-auzia»ren irakurketan sartu da burubelarri ikasnahikaria, aldi berean Eusebioren ahalegina lantzen dauala. Azkenean bere begi ninietan hitz ohargarri honeek gelditzen jakoz, lekeitiarrak lemoarrari zuzenduak:

«Prosa ariña ta erreza da orkoa, gero eta errikoiago; esaldi labur samarrak eta erdaltizak be, iñoz baiño ugariago. Orrelakoxea izan zeitekean arrezkero aren idaztemodua, jazo zana jazo izan ez balitz. Gerrateak euskal-literaturan egin euskun urratualdi negargarria, besteak beste,»

Erkiaga. *«Euskera»*. 1975.

Une horretan ulertzen dau ikasbarriak Eusebiok errepikaturiko lelo zenbaitzuk. Aldarte eta taiu bereziak. Erkiagak, gero be, berezi eta berarizko autorpena egingo deutsa Eguzkitzari, Lekeitioko kultur aste baten, Franco hil hurren egoala, herri itsastarrean lan egin eben euskal idazleez mintzatzerakoan.

Berbaldi horretan bertan, Erkiagak herria erakutsiko deutsa gazteari, ez idazle multzo eta obra abar soil baten antzera, giro baten fruitu eta kanporatze gisa baino.

Berbaldi berberaz baliatu zan, bere betiko ideiak beste behin be jirabiran jartzeko, entzule lekeitiar eta ez lekeitiarren gogoetarako: euskerak, orokorrean eta batez be, Lekeitioko euskerak erakusten zituen gazi-gozoak (besteak beste, kasurako, lanbideen aldaketez sorturiko, arranegitarren lehorreratze linguistikoa) herriaren euskalgintzagaz lotzeko. Bata besteagaz, guztiz estekaturik, kate apurtezinaren bi lokarrien modura.

Aspalditik etorkon, edozelan be, kezka hori, euskerarena. Euskera landu eta zabaldu, horixe da Eusebioren minzorra.

Egoera zailean ikusten dau euskera:

«Orain, nire ustez, eztira euskaraz komunzki mintzatzen, erdara ongi eztakitenak baizik. Baserritarrak berak erdaraz ari dira. Naparroan, Bizkaian eta Gipuzkoan bertan, hiri nagusittoetan euskara hil hurranda. Hirixkaetan eta herio minak io du. Gure artean arrantzaleak bait ditugu iende ez-iakinena, hauk dira oraindano euskaraz mintzatzen direnak.»

Erkiagarre. «Gernika». 1952.

Konponbideak be, ez beti ondo norabidetuak:

«Bainan, Jaingoikoarren, aski dugu etimologiari buruzko erdal-lanik! Espezialistak, teknikaren zorrozkeriaz eta lankailuen laguntasunaz ari diren artean, bada, eria, osasun osoaren behar den eria —jeuskara gaisoa!— osatzen ahal ezpaita.

Unerik larrienen dugu gure mintzaira, euskaldunok, eta ezta aski ahalegin teori rizkoetan aritzea. Erabiltzeke, eztugu euskara aintzen ahal, eta gauk landu ezik, bertzek egingo eztu.»

Erkiagarre. «Gernika». 1953.

Euskera haize barriagoetara hedatzeko zereginetan, Eguzkitza dau Erkiagak lehenetarikoen artean. Esandakotik urte batzuetara, gure gazteak, Eguzkitzaren lana barrero argitaratzea lortu dau, eta Eusebiok, haren kontrakoan zirtolari, edizio barri honen aurrean lehenengo izapideak berresten ditu:

«Barrero be, esan beharra da. Lemoarra batez be, hizlaria izan zala eta haren etorria berbaldian edota idazterakoan trenbide berberekoa izan ohi zala. Esale ona, argiro ta jasean amaitu ohi eban azaldu beharre-

koa. Euskal hitzurren jatorrean; ardatzean ez egoan hondarrik, koipea baino.»

Eusebio Erkiaga. "Boltxebikiak, Eguzkitza ta honen saio «Gizarte-auzia» barrero". «*Karmel*». 1991.

III

Bat hirutan be zabaltzen da Eusebio Erkiagarengan, nobelagile eta azterlari ezeze, olerkaria be badala baieztatzeko. Hirurotatik, menturaz, honako azken hau, bere gogokoen eta kuttunen.

Herrigile, esan dogu aurretiaz. Herriarengan sustraituta, esan dagigun luze baino lehen.

Jaioterriaz:

*«Baiña, badaezpadan... Agur Lekeitio!
euskeraren bitartez
goratu nahi izan zaitudan
nire jaioterri,
nire amesen zorabio,
Ene Lekeitio!
mundu haundiko aberri txiki.
Uberan nahi neuke nik
zeruko kaia atxiki.
Agur... agur...
euskal itsaso, euskal lur»*

Eusebio Erkiaga. «*Agur, Lekeitio!*». Lekeitio. 1986.

Euskal Herriaz:

*«Zeren hutsa du, bada, gure euskal Herriak?
Zeren huts gure begi eta belarriak?
Ai! ba-dakit zein lan beltz egin dun aldiak:
euskalduneri ostu mintzo bereiziak.
Mintzo ta gogo gabe eztugu lehena,
azal berdinkara ta... galdurik barrena.»*

*Arbasoen herria idurizko dena:
hala dut bihotzean minaren eztena!*

E. Erkiaga. «Arbasoen Herri». 1954.

Euskal Literaturaz:

*«Kanta dezadan pozez gainezka
garai gogoangarria;
jaso, eredu izan zitzaigun
AXULAR gizon handia.
Guregan bedi haren itzala
batipat mintzo garbia,
haren arnasak zuzpeltu beza
gure Euskal-Herri guzia.»*

E. Erkiaga. «Axular handiari, ohore». 1956.

Baita be azterlanetan. Zer esan, besterik bage, Lekeitioko euskal idazleen inguruan egindako txostenei buruz? Herri horretako seme euskaltzale jasekoak, aita Kandido Basabe jesuitak, hain zuzen be, nekez altxatuko leukeen egungo lekeitiarren artean bere burua, Erkiagaren moduko herrikideak haren ahaleginak haizatzen ibili izan ez balira.

Miaketak miaketa, Eusebio Erkiagak «Olerti» aldizkarian aita Basaberi eskeinitakoa, eredu eta jakingarri. Nor hobea, bestalde be, haren obrak ikertzeko? Nor aproposagoa, haren zertzeladak azpimarratzeko? Luze, malgu, eroso eta bizkor ibili jaku lekeitiar jesuita euskal letretako parajea. Benetako euskaldun izan zalako seinale dudabakoa. Aburua berehala jatorke Eusebio Erkiagari, herrikideaz jarduterakoan.

Hasteko, lekeitiarra izatearren zor deutsan irakurketa:

«Orain illabete batzuk, jazoera bakan batek eskuetara euskun aren liburuetarik txikarrena. Axe izan zan guretzat ustekabeko zera! Mundu traskil onetan, gure erruz edota besteren griñaz, ara ta ona sakabanaturik, euskaldun askori leenaren aria sarri askotan eten egin

yaku. «Eleiz-liburutxua» guregandu, ta, euskaltzale lez eta lekeitiar lez, zor andi bat idoro genduan guregan, eta bapatean asmo bat otu yakun: Aita Basabe zanaren gomuteari ta aren euskal-lanen nekearen saritzat, merzei izan dauanaren ordain apur au eskeintzea.»

E.Erkiaga. «Aita Kandido Basabe, S. J. euskal idazlea». *Olerti*. 1962.

Gerotxuago, idaztankeraz eta joskeraz dihardu, helburuetatik urrintzeke:

«Azterpen luzeetan jarduteke, ereti onetan, burutu dagiguzan iru zer oneek, Aita Basaberen lanaren erakusburutzat.

1) *Aren esanaldien estekatzea, eretza ta itzurrena, esanen lokarria ia betiro, esaleen aotik jasorikoa da; izkera bizia, errikoia.*

2) *Itzen aberastasuna ugari samarra, eta eurak erabilteko eukan sena ta eskua.*

3) *beste izkuntzetatik egin zituan itzulpenetan ezarri eban egokitasuna.»*

E.Erkiaga. «Aita Kandido Basabe, S. J. euskal idazlea». *Olerti*. 1962.

Azkuetarrok be, goraipuan gure Eusebiok. Biak lekeitiarrak, aita-seme ohoretsuak euskaldun zereginetan. Aita, Eusebio, olerkaria; semea, Resurrección, arlo askotan neurri eta asperbako euskal bultzagilea. «Erraldoi» izendatua, nonbait, euskal gauzetan.

Lehenari lana eskeini, 1973. urtean, Euskaltzaindiaren etxe barnean. Bigarrena, bere ikutu pertsonalaz inguratu, gozo eta abegikor, hitzaldi gogoangarri baten: «*Resurreccion Maria de Azkue-z ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak*», Egan, 1964.

Luzeegi joango litzakigu Eusebiok bere herrikideari egin eutsan aipamena orrialdeotara ekarri beharko bagendu. Labur

ibili behar, oster, hemen. Ttanta batzuk, alabaino, ezin ixildu. «Bakarlanen zalea, biotz samurrekoa, emaillea zan, gogo onekoa eta baita be lekeitiozalea. Aldi berean be, gizon ederra, jatorra, ibiltauna, mediku-zalea ez, baina bai zuzentzaile eta araugilea...» Honela dirausku Erkiagak Azkue handi zanaren ezaugarria marrazterakoan.

«Mea culpa» bat eginez jabilku Erkiaga lan horren atarian:

«Gure aldameneko, auzoko, ikusterrean ta entzuterrean genduenean, ez genion jaramon andiegirik egiten. Agian, hura zaharra zan; gu, gazteak. Orraitio, geroago ikusten ditugu haren lanak, liburuak; geroago aztamukatu haren nekeak; gerogarrenean neurtzen ta estimatzen haren garra ta jorana, haren mingots-aldiak, haren izerdia. Bizi luzeko eskeintza izan bait zan, harek Euskerea-z egin maite-eztai urraturik gabea.»

E. Erkiaga. *Egan*. 1964.

Gerogarrenean be, gaiaren mataza askatzen jarraitzen dau Erkiagak:

«Guk geuk, Azkue bi bereziko ditugu beti. Batetik, jakin-gaietan eta maisukuntzan ari dan gizona. Eta besetik, artista-anima izanik, idazten edota musika sortzen jardun izan duen euskaldun jatorra. Lendabizikoa, buru-neurriz, gogoko zaigu. Bigarrena, ordea, eder-jarioz, goxo-erasoan, iturri gozagarri izango zaigu, aomenaren ezti.»

E. Erkiaga. *Egan*. 1964.

Merezimenduzko autortza, orokorrean:

«Eder-letra kontuan moko fiñak diranek, haren lenbiziko lanetan izango dute, geienbat, elerti-ukitu hori. Halako bizitasun eta etorria; halako izatetiko jatorusain eta keru atsegiña.»

E. Erkiaga. *Egan*. 1964.

Gure Eusebio, ez da, horraitino, lekeitiarren goramen zintzo eginagatik be, herri arteko bazterkerietan jabilkun horreetari-koa. Bereari eutsi, horixe baietz, baina kantuaren antzera «eman da zabal zazu» ikurtzat hartuta, Euskal Herri osora zabaldua. Gazterik joanda Bilbora, euskal zereginetan hartzen dau parte. Guda zibileko garaiak dira eta Erkiagak, ordurako, olerki aipamen berezia lortu dau Lekeitioko Olerki egunean (1936).

Trumoi baltzak datoz ekialdetik. Bizkaia osoa sutan. Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa izkiluen bestekaldean. Euskera be gerrarako lanabesa. Euskaltzale askoren ametsa neba-arreben arteko iskanbilaren poderioz errealitate bihurtu da. Han EGU-NA, euskeraz osotasunean. Azkenean euskerazko egunerokoa. Atzean, beste batzuen artean, hiru idazle gazte: Barinagako Jose Mari Arizmendiarieta, Lekeitioko Eusebio Erkiaga, Ondarroako Augustin Zubikarai. Lea-Artibai eskualde euskaldunaren indarra eta eragina. Gero... gudaren amaiera, galerak, euskal kazetaritza posible baten porrota, osotzen etorren euskerazko kultur mundu baten desegitea.

Urte luze, urte ilunak. Lan ixila, lan nekeza. Burujasoera txikia berrogeitamarretan. Berehalakoan Euskaltzaindian: urgazle (1952) eta oso (1963). Akademi barruko arazoetan lanorduak, batipat kudeaketa zereginetan eta ekintza akademikoetan. Euskera eta euskerarenganako axola beti buru eta bihotzean...

Idazle be, zeresanik ez dago. Teatroz zein olerkiz euskalgaiaren kezka. Euskal jatorrizko kutsua begibistakoa:

Antzerkian,

*«KORUA.- (Astiro) Dulun, dulun, dulun, dulun!
Gaizkiña bere ez zan urrun
Dalan, dalan, dalan, dalan!
(Azkar) Garagarza-ko mutilla
parte txarrekoak illa.
Lamiñea ariñeketan
(Astiro) Kanpaien atsekabetan
igeska, isil isilla?»*

Dulun! Dalan!
Dulun! Dalan!
Dan!...
(Oiartzun luzea, apala)

E. Erkiaga. «Kanpaien atsekabez». *«Euskera»*. 1960.

zein hitz lauean: «Arranegi» (1958), «Araibar zalduna» (1962), «Batetik bestera» (1962),

*«Legeak sortutako zera, legepe ta legetsua izan bere-
ta, laterriak ba ditu, jakiña, bereak eta bost. Aspaldian
gogoan izaniko eguna, egun iguin ta gorrotogarria,
eldu yaka Nikanor-eri. Esan deutsa esan, Ezekiel lagun-
tzarrak, gorabeera zipotea.»*

Eusebio Erkiaga. «Batetik bestera». 1962. 158-159. orr.

Gaztetxoa, unibertsitateko ikasketen azken urtea amaitubari, badoa kanporantza, Arranegin uda igaro eta gero. Eusebiogaz, ohitura dauanez, bere aututxua euki dau. Biok denpora nahasiak datozela ohartu dabe. Franco hil da. Denpora bestelakotsuen egarriz, euskal kultura gorantza ei dator. Gizartea be aurrera bide doa. Erkiagak, dana dala, klasikotasunaren podereak emoten dauan trebeziaren jabe, bere horretan dirau: ideiak garbi, euskalduntasuna xede.

IV

Bat lautan azaltzeko aukera be emoten daualako Eusebio Erkiagak, historia honetako gaztetxoak azkenekoak be idatzi nahi ditu, gogoaren hustuketa hau, esker onaren agerpena izan daiten.

Herritik urrutira joandako gizongai ha Arranegira bihurtu da. Kanpoaldean eginiko ikasketak bukatuta, Euskal Herrian egingo dau lan. Arean bere, Arranondotarren herrira dator, Arranegiko ondora. Eusebiok, beti anaikor, Ondarroako euskal idazle

baten ezagupidea emon deutsa. Hortxe dago Augustin Zubikarai. Larogeitako hamarkada hasita dago.

Eusebiok, edozelan be, lanean dihardu. Laster datoz, aspaldiko etena apurtuz, «*Jaioko dira*» (1984) eta «*Txurio Txoria*» (1986), «*Irribarrea galtzen danean*» (1987) be, ahaztu barik. Berbiztu da haren luma euskal elaberrirako. Ernatu da, ostera be, haren hazia euskal soroan. Herriak be, bere Lekeitiok, omendu egin dau (1988). Berebat Eusko Jaurlaritzak. Bizkaiko Foru Aldundia eta Labayru Ikastegia be ez dira atzean gelditu deduzko aipamenetan. Lorietan dogu gure Eusebio, lehen bai-zen apala, alabaino.

Ereiten danak, berandu zein goiza, fruitua dakar. Euskal Herriera etorribarria, artean, bere lehen ahalegin dorpeetan jabilku. Liburutxo bat argitara emon eta Eusebio adixkideari bialtzen deutsa, eritzi eske. Honek, adixkidetasunaren lainoek eguzkia nora dagoan ikusteko ahalmena galdu eragin бага, lehen obratxo horren argilunak markatu eta zuzendu, autorearen poza eta ikasbiderako.

Aldiak aldi, euskera badator aurrera. Eusebiok jakin badaki euskal hizkuntzak ezinbestekoa dauala eguneratzea. Eguneratze gotorra, latza, hainbat gizalditan zientzia arloetatik alden-duta ibili ostean. Lanean dabil. Lan ixilean, ostera. Euskal Akademian euki ditu horrelakoak: ekonomia, burtsa, zuzenbidea. Eguneroko biarrean be horrelakoak, banketxeko hartuemone-tan ibilita. Hirugarren adinekoan dago, antza, Erkiaga. Hilean ez, ostera. Laster, Eusebiok, beste opari bat egingo deutsa euskal kulturari. Ilun eta trakets samar izaten diran erdarazko testu juridiko-administratiboen euskal ordaina emon dau, tankera jator eta berezian. Bizkaiko Foru Aldundiaren aginduz Bizkaiko Batzar Nagusietako testuak euskeratu ditu. XIX. mendeko tradizio etenak, ehun urte geroago, segida ohoretsua euki dau Erkiagaren jardunetan.

Espainiako erregea be, Eusebioren berbetan jabilku, euskera doi batez:

«*Juan Carlos, Espainiako Errege.*

Oraingo hau ikus eta aitu dagienei, jakin:

Gernika Doe-Herrian 1979 gnko. Apirilaren hogetazortzigarrenean Bizkaiko Batzar Nagusiak batzanduteko dirala, eta ekandu historikoaren eredura, 1979 gnko. Urtarrilaren 26 gnko. Errege Dekretu 124. bidez barri-raztua, Erregeri dagokiola Mahaiburutza edo Errege ordezkariaren bitartez. Bizkaiko Batzar Nagusiak nire errege aldian batzanduten diraneko lehenengo eretia hauxe izanik, eta heurretan neure lekukoa izatea gura, lehenengo ereti honetan Ahaldun Nagusi izan daitekeena Errege Ordeskari izentautea erabagi dot, honek eite hori adierazo Batzarretan buru-egingo dau neure ize-nez Foru-arabera, aipaturiko Dekretuak ezarria dauka-nez. Horixe agintzen dot Madrilén, mila bederatzirehun eta hirurogeta hemeretzigarren urteko Apirilaren hoge-tabost garrenean.

Sinatua eta zirrimarratua, Juan Carlos»

«Bizkaiko Batzar Nagusietako batzar-agiriak: 1979-1983».

Denporak aurrera doaz. Gazte ha, jada ezkondata, Euskaltzaindiko urgazle egin dabe. Eusebio, beti abegikor, hantxe dago, sasoi baten Lekeition heldubarria izan zanaren aldamenen-an, bere egotaldiarekin aspaldiko lagunari birrespena emoten.

Ekitaldi ostean, izendatu barriak etxera eroan dau Eusebio. Honek, gozokiro, egoteko apurtxo baten. Laster, eskura, bere azken liburutxo: «*Gizonaren aldia*» (1990), Jose Maria Arizmendiarieta abade ospetsuari zuzenduta. Azalean, adixkidearen opa; muinean, betiko olerkari paregabea. «Hurrengorarte» gozo bat alkarri eginez, aldendu dira. Ostera be, Lekeition alkar ikusiko dabelakoan dabilz. Udan itsasaldean alkarrekin solas txikia izan eta gero, udazkenak lagun erkide baten omenaldia dakar. Augustin Zubikarai da omendua. Eusebiok, makal ibili arren, langile eta prestu beti, arranondotarren eskaera

onartu dau. Badatoz hitz lauko jario fina «*Augustin, ordu onean*» eta bide beretik be, bertsoak.

*«Baina jai hau ez dogu
diruzko zorrena,
eta bai esker onak
daukan agerpena.*

*Hori da zuzena!
Herria goratuten
izan da lehena,
Augustiñek merezi
guztien omena.»*

E. Erkiaga. «Augustin Zubikarairi omenaldia». «*Karmel*». 1992.

Anartean, Arranondotik bialdu deutsa Eusebiori mutiko izandako harek bere azken liburua. Hasieran isilgunea. Gero, otoz-otoan, adixkide arranegitarraren erantzun zolia, eta aldi berean, estua:

«Arnasa estuak narabil larri, kalaran kalaran; une itogarri antzekoak sarri, itzelak. Agur.»

«Uda ez dau ekarriko» esan deutsoe arranondotarbarriari Eusebioren lagunak». Beste behin be, udan Lekeition alkar ikusiko dabelakoan dago ha, Eusebiogaz telefonoz berba egin eta gero.

Handik laburrera, telefonoaren hotsaldiak bulegoaren goiz-lana hautsi egin dau. Barria zabaldu da. Eusebio joan jaku. Une batez, gela hotzetako baino berba jakintsuetako ikasle izan-nikoak irakasle hilbarriaren erakusbide zabala gogoratu dau. Maisua, —berari berbatxo honek atsegin handirik emon ez arren— eta adixkidea. Bat bitan banatzen da.

Gogoeta tarte, burura be etorri jako Eusebio Erkiagak behin idatzi ebana, hain zuzen be, Azkue zanak Eguzkitzaren herio-tzeaz jabetu baizen laster aldarrikatorikoa: «*Gizon aundi bat il da. Eguskitza il da*».

Buruak hori badinotso be, bihotzak nahiago dau, hobesten dau, Eusebiok berak hobetsiko leukeen modu berberean, gomuta eta oroitzapen nahian ibili eta olerki giroan barruratzea:


*«Jakintzak dakar askatasuna
jakituna dan herrian,
jakintza gizarteko ondorenak
tronua demokrazian.*

*Neke jardunen mordo handiez
aparteko irabazian,*

*«ekin degiogun nekeari;
atsedena... Parusian.»*

E. Erkiaga. «Gizonaren aldia». 1990.

ANDRES URRUTIA



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509

48340 Amorebieta

Trañabarren, 13 Bloque 1-4
Urrut: 681 1009

48220 Matiena (Abadiano)

JUAN MANUEL SASUATEGI

AVISA: 444 3500 - Abonado 868